

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1933

47/2023 EBAZPENA, apirilaren 11koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita erakundeekin sinatutako hitzarmena, birgaitze-bulegoaren eta laguntza-programa hauen erakunde laguntzailearen eginkizunak garatzeko: Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) bizitegien birgaitzearen arloko 3., 4. eta 5. programak (urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan arautuak), bai eta etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako 2021eko uztailaren 21eko Aginduan zehaztutako finantza-neurrien 1. eta 2. lerroak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak sinatu du hitzarmen hori, eta behar bezalako publikitatea emateko asmoz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea erakundeekin sinatutako hitzarmena, birgaitze-bulegoaren eta laguntza-programa hauen erakunde laguntzailearen eginkizunak garatzeko: Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) bizitegien birgaitzearen arloko 3., 4. eta 5. programak (urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan arautuak), bai eta etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako 2021eko uztailaren 21eko Aginduan zehaztutako finantza-neurrien 1. eta 2. lerroak. Hitzarmen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 11.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2023ko apirilaren 24a, astelehena

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN APIRILAREN 11KO 47/2023 EBAZPENARENA

HITZARMENA, EUSKO JAURLARITZAKO LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILARENA, ERAKUNDEEKIN, BIRGAITZE-BULEGOAREN ETA LAGUNTZA-PROGRAMA HAUEN ERAKUNDE LAGUNTZAILEAREN EGINKIZUNAK GARATZEKO: EUROPAR BATASUNAK FINANTZATUTAKO NEXT GENERATION EU SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (SEEP) BIZITEGIEN BIRGAITZEAREN ARLOKO 3., 4. ETA 5. PROGRAMAK (URRIAREN 5EKO 853/2021 ERREGE DEKRETUAN ARAUTUAK), BAI ETA ETXEBIZITZEN ETA ERAIKINEN BIRGAITZEAREN, IRISGARRITASUNAREN ETA ENERGIA-EFIZIENTZIAREN ARLOKO JARDUKETA BABESGARRIETARAKO 2021EKO UZTAILAREN 21EKO AGINDUAN ZEHAZTUTAKO FINANTZA-NEURRIEN 1. ETA 2. LERROAK

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez, Ignacio María Arriola López jaunak ordezkaturik sailburu den aldetik (Lehendakariaren 18/2020 Dekretuaren bidez izendaturik), eta egintza honetarako baimendua Gobernu Kontseiluak 2022ko azaroaren 22ko bileran hartutako erabakiaren arabera.

Bestetik (zerrenda atxikita) erakundea (zerrenda atxikita)-k ordezkaturik (zerrenda atxikita) den aldetik, eta (zerrenda atxikita) sozietatearen Administrazio Kontseiluak (data)-(e)an egindako bileran hartutako erabakiaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau sinatzeko behar besteko gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, bakoitzak Hitzarmen honetan duen esku-hartzearen arabera, eta horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– COVID-19ak eragindako pandemiak krisi ekonomiko, sozial eta sanitarioa ekarri du. Erronka handia denez, erantzun bateratua eman behar izan zaio Europan. Epe ertainera erantzuteko, asmo handiko Suspertze Funtse jarri da martxan, COVID-19 osteko munduan ekonomiak suspertzeko prozesuan laguntzeko, 2021etik aurrera.

Bigarrena.– 2020ko abenduaren 31n argitaratu zen 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituena.

Hirugarrena.– Bestalde, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua betez, Ministro Kontseiluak, 2021eko apirilaren 27ko bileran, Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) onartu zuen. Plan horrek 2021-2024ko aldiari abiaraziko diren proiektuetan jartzen du arretagunea, ekonomiaren suspertze eta eraldatze azkarrean haien eragina ahalik eta handiena izan dadin. Europako Batzordeak Planaren aldeko ebaluazioa egin zuen 2021eko ekainaren 16an, eta Europako Kontseiluak 2021eko uztailaren 13an onartu zuen.

Plan honen lehen ardatza inbertsio publikoa eta pribatua indartzea da, produkzio-eredua berridazteko, trantsizio berdea, deskarbonizazioa, energia-efizientzia, energia berriztagarrien hedapena, ekonomiaren elektrifikazioa, energia biltegiak garapena, ekonomia zirkularra, naturan oinarritutako irtenbideak eta sektore ekonomiko guztien erresilientziaren hobekuntza bultzatuz; beren-beregi txertatuta 2. osagai bat, eraikin-parkea birgaitzeko eta hobetzeko jarduketak

bultzatzeari buruzkoa, nola hiriguneetan hala landa-eremuetan, Espainiako Hiri Agendaren esparru estrategikoa aintzat hartuz, eta energiaren eta jasangarritasunaren eremuan ahalik eta asmo jasoenak hauspotuz.

Laugarrena.– 2. osagai horrek erreforma eta inbertsio sorta bat ezartzen du, bizitegi-erabilerako eraikinen birgaikuntzan espezifikoki aurrera egitea ahalbidetuko duena, jardunbide hori erregulazio-arloko neurrien eta finantzaketaren bidez bultzatuz, ingurune onuragarri bat sortzeko. Laguntza-sistema horren egituraketa garatzen da urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren (SEEP) laguntza-programak arautzen dituen, bizitegiak birgaitzeari eta etxebizitza sozialei dagokienez, non laguntza-programa hauek artikulatu eta arautzen baitira, besteak beste:

- 1.– Auzo-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programa.
- 2.– Birgaitze-bulegoei laguntzeko programa.
- 3.– Eraikin-mailako birgaitze-jarduketetarako laguntza-programa.
- 4.– Etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko jarduketetarako laguntza-programa.
- 5.– Birgaitze-lanetarako eta birgaitze-proiektuak idazteko lehendik dagoen eraikinaren liburua lantzeko laguntza-programa.
- 6.– Energetikoki efizienteak izango diren eraikinetan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzen laguntzeko programa.

Bosgarrena.– Planak baliabide publikoen ezohiko mobilizazioa dakar eta ezarritako helburuak finkatutako epean lortu behar badira, eragile ekonomiko eta sozial guztiek parte hartu behar dute jarduketak garatzeko; besteak beste, herritarrei informazio eraginkorra eman behar zaie, aurrez ezarritako laguntzen azken hartzaile posible gisa, eta ekonomia-ekoizpeneko sarea egokitu behar da, dagozkion jarduerak gauzatu ahal izateko.

Horretaz jabeturik, Eusko Jaurlaritzak 2. programa horretako baliabide ekonomikoen aurrekontu-aplikazioa egin du, eta, era berean, funts propioekin osatu ditu baliabide horiek, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan birgaitze-bulego horiei esleitzen zaizkien funtzioak garatzeko kostua finantzatzeko; hain zuzen, «leihatila bakar» gisa eratu ahal izan daitezten, programen onuradun izan daitezkeen pertsonak aurkezten dituzten laguntza-eskaerak berariaz eta espezifikoki bideratu ahal izateko. Baliabide ekonomiko horiek guztiak dirulaguntzak dira, eta zuzenean eman ahal izango dira, hala xedatzen baitu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak. Lege horretara jotzen du berariaz urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 25. artikulua, zeinak dagozkion programak garatzen baititu.

Seigarrena.– Era berean, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 7. artikuluan eta 3., 4. eta 5. programetako deialdiak arautzen dituen Aginduan, laguntza horien izapidetze administratiboa kudeatzeko erakunde laguntzaileak izateko aukera xedatu da, baldintza batzuk betez gero. Alde horretatik, esan behar da Etxebizitzak birgaitzeko jarduketa babesgarriei buruzko 317/2002 Dekretuaren 18. artikulua araberak, Birgaitzeko Hirigintza Sozietateek ere (BHS) egin-kizun horiek beren gain hartu ahal izango dituzte Eusko Jaurlaritzak une bakoitzean indarrean dituen finantza-neurriei dagokienez, bizitegi-sareko eraikuntzen birgaitzea sustatzeko eta dagozkion lankidetzak hitzarmena sinatuta.

Zazpigarrena.– Edozein modutan, aurreikusitako jarduketak garatzeko erakunde-artikulazioak herritarrengana ahalik eta gehien hurbiltzea eskatzen du ezinbestean, herritarrak baitira eraikinen eta etxebizitzaren bizitegi-birgaitzeari buruzko programen azken hartzaileak. Beraz, programei buruzko informazio gertukoa eta eraginkorra eman behar zaie, programak haien premietara hurbildu ahal izateko. Gainera, SEEPk ezarritako helburuak betetzeko, espediente horien izapidetze administratiboa arindu egin behar da.

Zortzigarrena.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak adierazi du estrategia-rik onena bulego-sare bat zabaltzea dela lurraldean, ahalik eta kapilaritate handienarekin, gaur egun bizitegi-birgaitzearen arloan dagoen sarea aprobetxatuz, birgaikuntzako hirigintza-sozietateen figuraren bidez. Sare hori lehendik dago eta aktibo dago, eta baliteke beste eragile publiko batzuen parte-hartzearekin osatu behar izatea.

Kontuan izan behar da, halaber, laguntzen azken hartzaileen ikuspegitik, haien titulartasuneko eraikinen eta etxebizitzaren bizitegi-birgaitzearen arloan egin beharreko inbertsioak ez direla inoiz jarduketa motaren arabera isolatuta aurkezten; aitzitik, inbertsio-erabaki konplexu bat izaten dute, bizitegi-higiezin guztien beharrak barnean hartuta, kontserbazio-betebeharretik hasi eta energia-efizientziara arte, irisgarritasun-baldintzen hobekuntza ahaztu gabe.

Hori dela eta, ez du zentzurik lankidetzak-hitzarmen honen xede partziala den birgaitze-bulegoaren eginkizunak urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan araututako 3., 4. eta 5. programak garatzera mugatzeak, programa horiek efizientzia energetikoan eragiten badute. Herritarrentzako informazioa eta aholkularitza zabalduta egin beharko liriteke birgaitze arloan gaur egun indarrean dauden eta lotura estua duten laguntza-lerroetara. Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloan jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriak buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren uztailaren 21eko Aginduan daude jasota, eta betiere, laguntza mota bakoitzarentzat ezarritako oinarri bakoitzaren esparru propioa errespetatuko da.

Bederatzigarrena.– Beharrezkotzat jotzen da, era berean, hitzarmen honen xedea osatuz, erakunde horien laguntza izatea, erakunde laguntzailea baitira urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak 7. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 16. artikuluan araututakoaren arabera. Eta beharrezkotzat jotzen da, hain zuzen, dirulaguntzak izapidetu eta ebazpen-proposamenak egiten laguntzeko, eta, hala badagokio, azken hartzaileen aldeko ordainketak egiteko.

Hamargarrena.– Erakundeen lankidetzak, birgaitze-bulego eta hitzarmen honen xede diren erakunde laguntzaile diren aldetik, beharrezkoa egiten du, halaber, Plangintza, Lurralde Antolamendu eta Garraio Sailak emango dizkien konpentsazio ekonomikoak antolatzeke modua definitzea. Konpentsazio ekonomiko horiek urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko 2. programaren kontura emango dira, 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, hala badagokio, jatorri autonomikoko beste funts batzuen kontura, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hamaikagarrena.– Laburbilduz, lankidetzak-hitzarmenaren helburua da Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde horien artean aldeko harremanak ezartzea. Erakundeek birgaitze-bulegoaren eta erakunde laguntzailearen lanak batera eta aldi berean hartzen dituzte beren gain, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eta etxebizitzaren bizitegi-birgaitzearen arloko programak eta laguntza-lerroak eraginkortasunez garatzeko lankidetzak garatu ahal izateko.

Hamabigarrena.– Bestalde, hitzarmen honek honako hauetan araututakoari jarraituko dio: HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko

sistema eratzten duena, eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia-erki-degoetako eta tokiko sektore publikoko entitateek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren ataletako neurrien mugari eta helburuak zenbateraino betetzen diren jakiteko jarraipena egiteko eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

Hamahirugarrena.– Hitzarmenak Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartutako Iruzuraren aurkako Neurrien Planean ezarritakoa beteko du.

Hamalagarrena.– Azkenik, honako hauetan xedatutakoa hartuko da kontuan: 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen, zehazki II. tituluko V. kapituluaren ezarritakoa (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsak kudeatzea), bai eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko Erabakian ezarritakoa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketaren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazteari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez.

Azaldutako guztia dela eta, bi aldeek interesa dute Hitzarmen hau sinatzeko, hala, arautu eta formalizatzeko, honako hauek izanik

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

1.– Hitzarmen honen xedea da aldebiko harremanak ezartzea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eta (zerrenda atxikita) erakundearen artean, azken horrek, birgaitze-bulego gisa honako eginkizun hauek bete ditzan: urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuak ezarritako 3., 4. eta 5. programei dagokienez («programak», aurrerantzean), eta Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriak buruzko 2021eko uztailaren 21eko Aginduko finantza-neurrien 1. eta 2. lerroei dagokienez («lerroak», aurrerantzean). Zehazki:

3. programa, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko eraikin-mailako birgaitze-jarduketarako laguntza, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren bidez garatua.

4. programa, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko jarduketarako laguntza, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren bidez garatua.

5. programa, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko birgaitze-lanetarako eta birgaitze-proiektuak idazteko lehendik dagoen eraikinaren liburua lantzeko laguntza, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren bidez garatua.

1. lerroa, obra partikularretan jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduan jasotakoak.

2. lerroa, erkidegoetako obretan jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduan jasotakoak.

2.– Hitzarmen honen helburua da, halaber, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eta (zerrenda atxikita) erakundearen artean aldebiko harremanak ezartzea, azken horrek beteko baititu, batera eta aldi berean, birgaitze-bulegoaren eginkizunaz gain, erakunde laguntzailearen berezko zereginak, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 7. artikuluan

eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 16. artikuluan ezarritakoak, aurreko apartatuan aipatutako programei eta laguntza-lerroei dagokienez, hain zuzen.

Bigarrena.– Erakundeek birgaitze-bulego gisa dituzten konpromisoak:

1.– Erakundeek beren gain hartuko dituzte urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan garatzen diren birgaitze-bulegoen berezko eginkizunak. Zehazki, erakundeei dagokie birgaitze-bulegoen «leihatila bakarra» motako zerbitzua ematea, eta helburua izango da herritarren, jabe-erkidegoen, enpresen eta, oro har, birgaitze-eragileen zerbitzura dauden lehenengo klausulan aipatutako programei eta lerroei lotutako bizitegi-eremuko birgaitze-proiektuen ezarpena eta kudeaketa integrala errazten laguntzen duten zerbitzuak ematea.

2.– Bereziki eta gutxienez, erakundeek honako eginkizun hauek garatuko dituzte eta horien ardura hartuko dute, garatzen dituzten programa eta lerroei dagokienez:

a) Programen eta lerroen laguntzei buruzko informazioa eta zabalkundea:

a.1.– Dagozkien programen eta lerroen berri ematea herritarrei, bai eta haiekin lotutako laguntzak eskatzeko aukeraren berri ere, bai zuzenean, bai bizitegi-eraikinen jabe-erkidegoak administrazioen dituzten pertsonen bitartez. Horretarako, toki espezifiko bat izan beharko dute erakundeetan, eta pertsona bat edo gehiago egongo dira bertan erakundeek jendeari arreta emateko dituzten ordutegietan.

a.2.– Dirulaguntzak eskatzen dituztenei informazioa eman, orientatu eta aholkatzea, aurrez aurre nahiz bestelako komunikazio-kanal gaituen bidez (telefonoa, posta elektronikoa, webgunea eta abar), laguntzei buruzko zalantzak argitzeko eta baldintza eta betekizunen inguruan orientatzeko.

a.3.– Programen eta lerroen laguntzak badirela jakinaraztea eta, hala badagokio, hainbat bitartekoren bidez egiten diren zabalkunde-kanpainak gauzatea, betiere urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan eta uztailaren 21eko Aginduan ezarritako publizitate- eta komunikazio-betebeharrak errespetatuz.

b) Herritarrei laguntza ematea programa eta lerroetako laguntzak jasotzeko eskabideak aurkeztean.

b.1.– Eskabideak behar bezala beteta daudela eta eskatzen diren agiriak aurkeztu direla egiaztatzea. Horretarako, hau egin beharko dute:

– Eskatzaileak identifikatu eta aurkeztutako agiriak egiaztatzea eta baloratzea.

– Agiriak zuzentzeko eskatzea, baldin eta nahikoak edo zuzenak ez badira.

b.2.– Aurkeztutako eskabideak, behar bezala bete ondoren, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Tramitagune izapidetze elektronikoko plataforman sartzea. Beti adierazi beharko da eskabide presentzialaren sarrera-data, eta egindako eskabideak erakundeetan sartzen direnetik gehienez 3 egun balioduneko epean sartu beharko dira plataforma horretan.

b.3.– Laguntza-programei lotutako datu pertsonalen tratamendu-eragile izatea. Tratamendu horren azken arduraduna Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza da, eta pribatutasun-neurrien arduraduna, berriz, Saileko Zerbitzu Zuzendaritza.

Tratamenduaren gaia, iraupena, nolakotasuna eta helburua, eta datu pertsonal motak eta interesdun-kategoriak eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak ezarrita daude Hitzarmen honen eranskinean.

Erakundeak ez dira inoiz izango zerga-informazioaren hartzaile administrazio publikotzat hartzen ez direnean edo administrazio publiko ez direnean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.3 artikuluan dioenaren arabera.

Interesdunak informazioa lagatzea baimentzen duenean, ezingo diete hirugarrenei laga jasotako zerga-informazioa edo ekonomia arloko informazioa.

Laguntza hauek onartzeko eskatzen diren eskakizunak betetzen direla egiaztatzea, zerga-administrazioetik jasotako informazioan oinarrituta egiten denean, eskatzaileari buruzko zerga-informazioa eskuratzeko baimen modura eskabidean agertzen den administrazio publikoak egin beharko du zuzenean, eta betiere, Eusko Jaurlaritzak eskura duen informazioaren bidez.

c) Programen eta lerroen bilakaeraren jarraipena.

c.1.– Hiru hilean behin, programa eta lerro bakoitzaren bilakaerari eta banakako martxari buruzko informazioa ematea Etxebizitza Sailburuordetzari, eta honako hauei buruzko datuak ematea:

c.1.1.– Helburuen bilakaera. Pertsona interesdunen kopurua.

c.1.2.– Helburuen bilakaera. Erregistratutako laguntza-eskabideen kopurua.

c.1.3.– Helburuen bilakaera. Laguntza-eskabideen xede diren «etxebizitza bakarrak»

c.1.4.– Birgaitze-bulegoaren gastuen egoera.

c.1.5.– Hobetzeko proposamenak.

c.1.6.– Laguntza-programaren bilakaerari buruzko beste edozein informazio.

d) Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 3., 4. eta 5. programei dagokienez, erakundeek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) osatzen duten printzipioetatik eratorritako betebeharrak egokituko dituzte beren eginkizunak; jarraian zerrendatzen dira:

d.1.– Mugarren eta helburuen jarraipena eta egiaztapena.

d.2.– Etiketatze berdea eta etiketatze digitala.

d.3.– Jarduketek ingurumeneari eragin ditzaketen arrisku esanguratsuen analisia.

d.4.– Iruzurra eta ustelkeria saihestea eta interes-gatazkak aztertzea.

d.5.– Estatuko laguntzen araubidearen bateragarritasuna egiaztatzea eta finantzaketa bikoitza saihestea.

d.6.– Gardentasuna eta komunikazioa, laguntzen azken hartzaileak identifikatuz.

3.– Erakundeek, hiru hilean behin, birgaitze-bulegoko lanengatik laguntzen justifikazioarekin lotutako jardura hauek garatu eta horien ardura hartuko dute beren gain:

«Birgaitze-bulegoetarako laguntza» 2. programatik etor litezkeen dirulaguntzen ordainketa justifikatzen duten informazioa eta dokumentazioa prestatzea eta helaraztea, birgaitze-bulegoen kargurako jarduketei eta diruz lagun daitezkeen kostuei buruz urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera. Informazio horretan, ezarritako helburuen kontura jasotako aurrerakinen egoera jasoko da, halakorik bada. Horretarako, erakundeek birgaitze-bulegoari lotutako gastu eta kostuen kontabilitatea eraman beharko dute, erakundeen gainerakoetatik bereizita.

Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 23. artikuluan aipatzen ez diren gastuek ez dute inola ere laguntzarik jasoko. Hauek dira:

a.1.– Bulegoko informazio- eta kudeaketa-ekipoak diseinatzeko, ezartzeko eta kudeatzeko kostuak.

a.2.– Eskatzaileen zalantzei eta kontsultei erantzuteko berariazko zerbitzuak emateko kostuak.

a.3.– Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 3. eta 4. programetara bil daitezkeen proiektuak kudeatzeko, eskatzaile izan daitezkeenei efizientzia energetikoaren arloan laguntza- eta aholkularitza-zerbitzuak emateko kostuak.

a.4.– Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 3. eta 4. programak sustatu eta hedatzeko jarduera espezifikoaren kostuak.

Erakundeek langileak eta baliabide material propioak atxikiko dituzte, osorik edo zati batean, zalantzei erantzuteko eta laguntza- eta aholkularitza-zerbitzuak emateko. Kostuak zerrendatzen denaren arabera egotziko dira (giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitze konpromisoa, erantsitako zerrendaren arabera).

Hala ere, goian aipatutako zerbitzuen prestazioaren izaera dela eta, zerbitzu horiek hitzarmen honen xede diren programa eta lerroetarako bereizketarik egin gabe garatzen badira, justifikazio-dokumentazioa ere bakarria izango da bietarako.

Dokumentazio horretan jasota geratuko da jarduketa horien kostua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eranskineko 025 bis esku-hartzeen eremukoa dela, hots, «Lehendik dauden higiezinaren energia-efizientzia berri-tzea, frogantza-proiektuak eta energia-efizientziako irizpideekin bat datozen laguntza-neurriak».

b) Sailak Eusko Jaurlaritzaren gardentasunaren atarian argitaratu behar duen informazioa hiru hilean behin prestatu eta transmititzea.

4.– Erakundeek, 2. programaren kargurako laguntzen onuradunak eta azken hartzaileak diren aldetik, beren gain hartuko dituzte lege-arau hauetan haintzat ezarritako betebeharrak: Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan. Bereziki, entitateak behartuta daude jasotako dirulaguntzaren frogagiriak gordetzera eta jasotako laguntzak fiskalizatzeko eginkizunak beren gain hartzen dituzten erakundeek (Europako Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Bulegoak eta Kontuen Auzitegiek) egiten dizkieten finantza-kontrolak egitera.

Hirugarrena.– Erakundeen konpromisoak erakunde laguntzaile gisa:

1.– Erakundeek beren gain hartuko dituzte, hitzarmen honen xede diren programei eta lerroei dagokienez, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 7. artikuluan garatzen diren erakunde laguntzaileen lanak. Zehazki, herritarrek aurkeztutako eta 3., 4. eta 5. programen eta 1. eta 2. lerroen urteko deialdiak arautzen dituzten aginduetan jasotako laguntza-eskabideen instrukzio-organoen zereginak hartuko dituzte beren gain.

2.– Erakunde laguntzaile gisa, 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren 25. artikuluan ezarritako eginkizunak bete beharko ditu. Bereziki eta gutxienez, erakundeek honako eginkizun hauek garatuko dituzte eta horien ardura hartuko dute, garatzen dituzten programa eta lerroei dagokienez:

a) Laguntzak eskatzeko administrazio-espeditzea bultzatzea:

a.1.– Erregistroan aurkeztutako eskabideak aztertzea eta eskatzaileen betekizun subjektiboak eta dagozkien deialdi-aginduetan ezarritako jarduketaren helburuak betetzen direla egiaztatzea.

a.2.– Eskatutako laguntzak ematearen aldeko edo kontrako ebazpen-proposamena egitea, behar bezala justifikatuta, laguntzei buruz ebatzi behar duen organoari.

a.3.– Erregistroan aurkeztutako dokumentazioa aztertzea, laguntzen xede izan diren jarduketak egin direla justifikatzeko, eta, hala badagokio, eskatzen den justifikazio-dokumentazioa behar bezala betetzeko behar diren errekerimenduak egitea.

a.4.– Ebazpena eman behar duen organoari eskatutako laguntzak ordaintzearen aldeko edo kontrako proposamena aurkeztea, behar bezala arrazoituta.

a.5.– Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, eskabidea artxibatzeko ebazpen-proposamena egitea eta, hala badagokio, izapidetzea.

a.6.– Hala badagokio, laguntzei buruzko ebazpena eman behar duen organoari aldeztatik emandako laguntzak aldatzeko edo azkentzeko proposamena aurkeztea, behar bezala justifikatuta, eta laguntzak aldatzeko, azkentzeko eta itzularazteko prozedurak hastea.

a.7.– Komunikazioak eta jakinarazpenak kudeatu eta koordinatzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

b) Eskatzaileei laguntzak ordaintzea:

b.1.– Laguntza-eskatzaileei haiek ordaintzea, ebatzi behar duen organoak bidezkoa dela ebatzi ondoren.

b.2.– Laguntza-eskatzaileei ordainketa-aurrerakinak egitea, ebatzi behar duen organoak aurrerakin horiek bidezkoak direla ebatzi ondoren.

Ordainketak egiteko erakundeek ingesatu dituzten funtsak ez dira, inola ere, erakunde laguntzaileen ondarearen parte izango.

c) Programen eta lerroen bilakaeraren jarraipena eta gardentasuna:

c.1.– Hiru hilean behin, programa eta lerro bakoitzaren bilakaerari eta banakako martxari buruzko informazioa ematea Etxebizitza Sailburuordetzari, eta honako hauei buruzko datuak ematea:

c.1.1.– Helburuen bilakaera. Pertsona interesdunen kopurua.

c.1.2.– Helburuen bilakaera. Erregistratutako laguntza-eskabideen kopurua.

c.1.3.– Helburuen bilakaera. Laguntza-eskabideen xede diren «etxebizitza bakarrak».

c.1.4.– Birgaitze-bulegoaren gastuen egoera.

c.1.5.– Hobetzeko proposamenak.

c.1.6.– Laguntza-programaren bilakaerari buruzko beste edozein informazio.

c.2.– Programa eta lerro bakoitzari lotutako mugarrak betetzea Eusko Jaurlaritzak horretarako emandako jarraipenerako ingurune informatikoan.

c.3.– Eusko Jaurlaritzaren gardentasunaren atarian argitaratu behar den informazioa prestatu eta transmititzea.

2023ko apirilaren 24a, astelehena

d) Erakundeek, programei dagokienez, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan ezarritako printzipioetara eta betebeharrak egokituko dituzte funtzio horiek. Agindu horren bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik (SEEP) datozen funtsak kudeatzeko sistema eratzten da. Hauek dira:

d.1.– Mugarren eta helburuen jarraipena eta egiaztatpena.

d.2.– Etiketatzeko berdea eta etiketatze digitala.

d.3.– Jarduketek ingurumenaren eragin ditzaketen arrisku esanguratsuen analisia.

d.4.– Iruzurra eta ustelkeria saihestea eta interes-gatazkak aztertzea. Erakundeek Iruzuraren aurkako Neurrien Plana izatea eta interes-gatazkei aurre egiteko prozedura izatea eskatuko da.

d.5.– Estatuko laguntzen araubidearen bateragarritasuna egiaztatzea eta finantzaketa bikoitza saihestea.

d.6.– Gardentasuna eta komunikazioa, laguntzen azken hartzaileak identifikatuz.

3.– Erakundeek, erakunde laguntzaile gisa eginkizun horiek garatzeko, lehendik dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak osorik edo zati batean atxiki ahal izango dituzte.

Laugarrena.– SEEPk Next Generation funtsen organo kudeatzaileei exijitutako betebeharrak betetzea:

1.– 2022ko martxoaren 29an onartutako Eusko Jaurlaritzaren Iruzuraren aurkako Neurrien Planari atxikitzea, edo, hala badagokio, antzeko edukia duen plan propio bat edukitzea, bermatzeko eta deklaratzeko, dagokion jardun-eremuan, aplikatzekoak diren arauen arabera erabili direla funtsak, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez. Iruzuraren aurkako Neurrien Plan propioa edukiz gero, Eusko Jaurlaritzaren Legean xedatutakoa ere bete beharko du.

2.– Iruzuraren aurka borrokatzeko Eusko Jaurlaritzak 2022ko martxoaren 29an sinatutako adierazpen instituzionalari atxikitzea.

3.– Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGE) aurkeztea, hitzarmen honen II.B eranskinean jasotako ereduaren arabera. Betebehar hori honako hauei ezartzen zaie: kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dituzten enplegatu publikoei eta eginkizun horietako batzuk eskuordetu zaizkien beste agente batzuei, bai eta onuradun pribatuei, bazkideei, kontratistei eta azpikontrastiei ere, baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira eta beren interesen alde jardun badezakete, baina EBren finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

4.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan aurreikusitako ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa errespetatzea (do no significant harm - DNSH printzipioa). Erregelamendu horrek Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta aplikatzekoa den Europako gainerako araudia ezartzen ditu. Horretarako, DNSHaren autoebaluazioa egin beharko da, –Kalte nabarmenik ez egiteko printzipioaren autoebaluazioa (DNSH)–, hitzarmen honen III.C eranskinean jasotako ereduaren arabera.

5.– SEEPean esleitutako etiketatze klimatiko, ingurumeneko eta digitalari buruzko baldintzak betetzea, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eta VII. eranskinei jarraikiz.

2023ko apirilaren 24a, astelehena

6.– Argitalpenetan, hedapen-jardueretan, web-orrietan eta, oro har, edozein hedabidetan proiektuari egiten zaion erreferentzia orok SEEPren Irudiari buruzko Eskuliburuan agertzen diren baldintzak bete behar ditu. Aurrekoa alde batera utzi gabe, aipatu beharko da, nolana ere, jarduera SEEPren funtsen bidez finantzatu dela eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak kudeatu duela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18.4 artikuluan aurreikusitako moduan.

7.– Era berean, finantzaketa horren jatorria aipatu beharko da, eta haren ikusgarritasuna bermatu, bereziki diruz lagun daitezkeen jarduketak eta horien emaitzak sustatzen direnean; horretarako, informazio koherente, eraginkor eta neurritzkoa emango zaie hartzaile askori, baita hedabideei eta publikoari ere. Era berean, eremu horretan egiten diren lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztiek, bai goiburuan, bai garapen-gorputzean, honako erreferentzia hau izan beharko dute: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzatua», irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluekin bat etorritik. Agindu horren bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen da.

8.– Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrolatzeko ekintzetan erabil baitaitezke.

9.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskatutako beste edozein informazio eta dokumentazio bidaltzea.

Bosgarrena.– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) mendeko 3., 4. eta 5. programen jarraipen espezifikoa.

1.– Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta (zerrenda atxikita) erakundeek, EAEk Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) osatzen duten programei dagokienez beren gain hartutako helburuak betetzeko eta 2. programako funtsak aplikatzeko, honako helburu hauek ezartzea erabaki dute, orientazio gisa:

Sozietateak	IFK	IZENA	2023ko 4. hiru hilabeteetako helburu orientagarriak 3., 4. eta 5. programak
Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkarteak, S.A. Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao, S.A.	A48164339	Surbisa	670
Sociedad Urbanística Municipal de Vitoria-Gasteizko Udal Hirigintza Elkarteak Ensanche 21 Zabalgunea, S.A.	A01302462	Ensanche 21	300
Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza	Q2000537G	Donostiako Etxegintza	300
Sociedad Urbanística de Rehabilitación del Alto Deba, S.A. – Suradesa – Deba Garaiko Bereoneratzeko Hirigintza-Baltzua, Akziokako Baltzua. Degabehiba, A.B.	A20137329	Suradesa	200
Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Portugalete, S.A.	A48192983	Surposa	400
Oarsoaldea, S.A.		Oarsoaldea	150
Sestao Berri, S.A.	A95378014	Sestao Berri	130
Eretza Hirigintza Kudeaketarako Sozietateak, S.A.	A48885669	Eretza	100
Deba Behoko Garapen Ekonomikorako Elkarteak, S.A. – Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba, S.A.	A20098349	Debegesa	125
Sociedad Pública de Vivienda de Irun-Irongo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa, S.A.	A20736773	Irunvi	100
Guztira			2.475 ETXEBIZITZA

2023ko apirilaren 24a, astelehena

2.– Aurreko paragrafoan adierazitako helburuen jarraipen egokia egiteko, helburuak hitzarmenaren indarraldian proiektatuko dituen egutegia finkatzea erabaki da (egutegi orientagarria, erantsitako zerrendaren arabera).

3.– Ezarritako helburuak ez badira betetzen, aldebiko jarraipen-batzordea biltzeko deia egingo da, dagozkion zuzenketa-neurriak hartzeko, helburuak berriro zehazteko edo, hala badagokio, hitzarmena suntsitzeko.

Seigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren konpromisoak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) Birgaitze Programak arautzen dituen urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan programetarako ezarritako laguntzen zuzeneko onuradun gisa, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

Birgaitze-bulegoen berezko zereginetarako laguntzari dagokionez:

a) Konpromisoak garatzeko beharrezkoa den informazio eta aholkularitza guztia birgaitze-bulegoen eskura jartzea, aurreko klausuletan beren gain hartutako gainerako kudeaketa- eta izapidetze-funtzioak betetzen laguntzeko. Konpromiso horretan Sailak garatzen dituen prestakuntza-ikastaroak ematea sartzen da. Horretarako, Sailak pertsona bat izendatuko du solaskide izan dadin bulegoekin.

b) Beharrezkoa den dokumentu-euskarria bulegoaren esku jartzea eta haren sarbidea erraztea, bai eta Tramitagune Eusko Jaurlaritzaren izapidetze elektronikoko plataformarako sarbidea eta Eusko Jaurlaritzak gauzatzen dituen bulegoaren funtzioak garatzeko beharrezkoak izan daitezkeen gainerako software-programetarako sarbidea ere. Horren guztiaren azken helburua da trukatu beharreko informazioa osoa eta homologatua izatea; bereziki, programei eta lerroei lotutako laguntzak kalkulatzeari dagokionez.

Birgaitze-bulegoen izaera aitortzeari dagokionez:

a) Erakundeak birgaitze-bulego gisa sartzeari Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioarekin (MITMA) 2. programako funtsak aplikatzeko sinatzen dituen hitzarmenetan.

Birgaitze-bulegoen aldeko dirulaguntzak ordaintzeari dagokionez:

a) Birgaitze-bulegoak gastuak justifikatu ondoren, bigarren klausularen hirugarren puntuan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorratik jasotako 2. programari (Birgaitze-bulegoei laguntzea) dagokion itzuli beharrik gabeko dirulaguntza ordaintzea. Haien berezko eginkizunak betetzeagatik ordainduko zaizkie, kontuan hartuta, betiere, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan 1. programako laguntzekin ezarritako berariazko bateraezintasuna, finantzaketa bikoitza saihesteko.

Erakundeek 800 euro arte jasoko dituzte benetan birgaitutako etxebizitza bakoitzeko, baldin eta kudeaketa bulegoak egin badu 3. programaren bitartez (eraikin mailako birgaitze-jarduketak). Egiaztatuta geratu beharko da, dagokion justifikazioaren bidez, behar bezala egiaztatutako kostuen % 100eko mugarekin, bigarren klausulan ezarritako birgaitze-bulegoen kostu subentzionagarrii dagokienez.

Justifikatu ondoren, dirulaguntzak hiru hilean behin ordainduko dira, aldez aurretik egindako aurrerakinak likidatu ondoren, hala badagokio.

b) Aurreko letran ezarritako justifikazioa egin aurretik, erakundeen aldeko konturako funtsen aurrerakinak ordaintzea, hurrengo klausulan ezarritako araubideari jarraikiz.

Erakunde laguntzaile gisa hartutako betebeharrei laguntzeari dagokionez:

a) Konpromisoak garatzeko beharrezkoa den informazio eta aholkularitza guztia erakundeen eskura jartzea, aurreko klausuletan beren gain hartutako gainerako kudeaketa- eta izapidetze-funtzioak betetzen laguntzeko. Konpromiso horretan Sailak garatzen dituen prestakuntza-ikastaroak ematea sartzen da. Horretarako, Sailak pertsona bat izendatuko du solaskide izan dadin erakunde laguntzaileekin.

b) Beharrezkoa den dokumentu-euskarria erakunde laguntzaileen esku jartzea eta haien sarbidea erraztea, bai eta Tramitagune Eusko Jaurlaritzaren izapidetze elektronikoko plataformarako sarbidea eta Eusko Jaurlaritzak gauzatzen dituen bulegoaren funtzioak garatzeko beharrezkoak izan daitezkeen gainerako software-programetarako sarbidea ere. Horren guztiaren azken helburua da trukatu beharreko informazioa osoa eta homologatua izatea; bereziki, programei eta lerroei lotutako laguntzak kalkulatzeari dagokionez.

c) Erakunde laguntzaileei laguntza ematea, hirugarren klausulako bigarren paragrafoan instrukzio-organoentzat ezarritako betebeharrak behar bezala bete ditzaten.

Erakunde laguntzaileentzako dirulaguntza autonomikoak ordaintzeari dagokionez:

a) Eraikinetan obrak egin ondoren 3. eta 4. programetan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez badira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bitartez eta egindako gastuak justifikatu ondoren, 600 euro arte emango dizkie erakundeei benetan birgaitutako etxebizitza bakoitzeko, baldin eta erakundeek etxebizitza hori birgaitze-bulegoaren berezko eginkizunetan laguntzeko kudeatu badute, horretarako gaitzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorreko funtsen kargura.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako bakarrik, jarduketa kudeatu duten erakundeen egiaztapena egiteko 3. eta 4. programetako laguntzen eskatzaileak eskaeraren agirian bertan egindako adierazpena hartuko da oinarritzat, edo, halakorik ezean, 3. eta 4. programetako laguntzen eskaera egin duen sarrera-erregistroaren titulartasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bitartez, 600 euro arte ordainduko dizkie erakunde laguntzaileei, egindako gastuak justifikatu ondoren, benetan birgaitutako etxebizitza bakoitzeko, baldin eta etxebizitza hori erakunde laguntzaileek kudeatu badute 4. programaren bitartez (birgaitze-jarduketak etxebizitzetan). Egiaztatuta geratu beharko da, dagokion justifikazioaren bidez, behar bezala egiaztatutako kostuen % 100eko mugarekin.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bitartez, 600 euro arte ordainduko dizkie erakunde laguntzaileei, egindako gastuak justifikatu ondoren, benetan birgaitutako etxebizitza bakoitzeko, baldin eta etxebizitza horiek erakunde laguntzaile ez den beste birgaitze-bulego batek sustatu baditu eta ezin badu, beraz, laguntzen kudeaketa operatiboaren ziklo osoa osatu, lan hori, operatiboari dagokienez, erakunde laguntzaileek egin dutelarik. Laguntzak, horretarako gaitzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorreko funtsen kargura izango dira.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bitartez, erakunde laguntzaileen berezko eginkizunetan laguntzeko daukan itzuli beharrik gabeko dirulaguntza ordaintzea, egindako gastuak justifikatu ondoren. Dirulaguntza hori

gehienez ere 400 eurokoa izango da, 3. eta 4. programen bidez benetan izapidetutako espedienteetan sartutako etxebizitza bakar bakoitzeko, bosgarren klausulan ezarritakoari erreferentzia eginez. Ordainketa ez dago inola ere baldintzatuta kasuan kasuko programen kontura jarduketa benetan gauzatzen.

Zazpigarrena.– 2. programako laguntzen konturako aurrerakinak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren bitartez, eta erakundeek adostu dute bulegoa ezartzeko kostuak behar bezala artikulatzeko beharrezkoa dela birgaitze-bulego horiei dagozkien laguntzak aurreratzea. Laguntza horiek 2. programan daude jasota. Horretarako, hitzarmen honen bosgarren klausulan ezarritako 3. programan birgaitutako etxebizitza bakarren arloan finkatu diren helburuen arabera, bulegoari legokiokeen laguntzen % 30eko aurrerakina emango da, gehienez ere.

2.– Aurrerakinak hilabeteko epean emango dira, lankidetzeta-hitzarmen hau berresten denetik zenbatzen hasita, eta behin baino ez dira emango. 2. programaren kontura ez da beste laguntzarik emango erakundeek aurreko zenbakian ezarritako helburuen % 30 gainditu dutela justifikatu arte.

3.– Funts aurreratuak jasotzeak berarekin dakar urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean azken onuradun hartzaileentzat ezarritako betebeharrak onartzea.

4.– Birgaitze-bulegoak aldeztu aurretik emandako zenbatekoa jasotzeko eskubidea duela justifikatzen ez duen bitartean, aurrerakin horiek ez dira inola ere erakundeen ondare propioaren parte izango, eta erakundeek funts espezifiko bat eratu beharko dute hura kudeatzeko. Haren araubide juridikoa, baita hura garatzen duen mekanismoa ere, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan eta Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari buruzko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan ezarritakoa izango da.

Zortzigarrena.– Hitzarmena aldatzeko araubidea. Hitzarmenaren edukia aldatzeko, sinatzaileek aho batez onartu beharko dute.

Bederatzigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

1.– Aldeztu aurretik hitzarmena bertan behera uzteko aukera baztertu gabe, hitzarmen honen indarraldia sinatzen denetik 2026ko abenduaren 31ra artekoa izango da, eta ondorioak izango ditu urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 3., 4. eta 5. programei dagozkien laguntzen deialdia egiten duen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren ondorio-datatik aurrera aurkezten diren laguntza-eskaera guztietan.

2.– Aldeetako batek hartutako konpromisoak bete ezean, hitzarmena indargabetzea eskatzeko eskubidea izango du besteak.

Hamargarrena.– Datu pertsonalen tratamendua.

Hitzarmen honetako datu pertsonalen tratamendua egin behar bada, honako araudi hau beteko da: batetik, 2016/1979 (EB) Erregelamendua –Datuak babesteko erregelamendu orokorra–, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du), eta, bestetik, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Hitzarmena indarrean jartzen den egunean, sozietateak izango dira datu pertsonalen tratamenduaren eragileak; Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza da tratamenduaren arduraduna, eta, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, aldiz, pribatutasun-neurriena.

Tratamenduaren gaia, iraupena, nolakotasuna eta helburua, eta datu pertsonal motak eta interresdun-kategoriak eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak ezarrita daude Ingurumen, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta (zerrenda atxikita) sozietateek izenpetu behar duten Hitzarmenaren I.A eranskinean.

Eranskin hori Hitzarmenaren zati banaezina da, eta izaera juridiko bera du; halaber, izaera loteslea du, 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 28.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena).

Hamaikagarrena. Hitzarmenaren araubide juridikoa. Jarraipena:

1.– Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du, eta bere interpretazioan eta garapean Autonomia Erkidegoko eta Estatuko Administrazio Publikoen arteko lankidetzahitzarmenei buruzko araudiak agintzen du; bereziki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoak eta, gainera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoak, erakunde laguntzaileek dirulaguntzen arloan dituzten betebeharrei dagokienez.

2.– Horrez gain, kontuan hartu beharko du Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren araudi erregulatzailean xedatzen dena, eta, bereziki, honako hauek: urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko programak arautzen dituen; abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onartzen dituen; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena; HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena; HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko; abenduaren 23ko 11/2021 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onestekoa (II. titulua, V. kapitulua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako funtsen kudeaketa), eta Gobernu Kontseiluaren otsailaren 8ko Erabakia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazteari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez.

3.– Bi aldeek aldebiko batzorde bat eratzea erabaki dute, kide kopuru berarekin, hitzarmen honetan hartutako konpromisoen jarraipena eta interpretazioa egiteko (alde bakoitzak gehienez ere hiru pertsona izango ditu).

4.– Hitzarmena garatu eta betearazi bitartean aldean artean auzirik sortuz gero, Jarraipen Batzordeak horiek ezin baditu ebatzi, administrazioarekiko auzietarako jurisdikziora joko da, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatu denarekin bat.

5.– Hitzarmena suntsiarazi ahal izango da, bi alderdi sinatzaileetako edozeinek eskatuta, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan

2023ko apirilaren 24a, astelehena

jasotako suntsiarazpen-arrazoietakoa bat gertatzen bada. Hitzarmena suntsiarazteko akordioak likidatu egingo ditu aldean artean eska daitezkeen eta egiteke dauden betebeharrak ekonomikoak.

Jasota gera dadin eta ados daudela erakusteko, Hitzarmen hau sinatu da goian adierazitako tokian eta egunean.

2023ko apirilaren 24a, astelehena

Sozietateak	IFK	Izena	Udalerriak	Sinatzaileak	Kargua	Sozietatearen administrazio kontseiluak data Honetan Hartutako Erabakia:
Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkarte, S.A. Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao, S.A.	A48164339	Surbisa	Bilbao	Iván Calderón Fuente	Bilboko Udaleko Hiri-berroneratze Arloko zinegotzi ordezkaria eta Surbisaren egitezko lehendakaria	2022-03-24
Sociedad Urbanística Municipal de Vitoria-Gasteizko Udal Hirigintza Elkarte Ensanche 21 Zabalgunea SA	A01302462	Ensanche 21	Gasteiz.	Ana Oregi Bastarrika	Lehendakaria	2022-03-31
Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza	Q2000537G	Donostiako Etxegintza	Donostia	Eneko Goia Laso	Lehendakaria	2022-03-18
Sociedad Urbanística de Rehabilitación del Alto Deba, S.A. –Suradesa– Deba Garaiko Bereoneratzeko Hirigintza-Baltza, Akziokako Baltza. Degabehiba, A.B.	A20137329	Suradesa	Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate/Mondragón, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati	Gorka Artola Alberdi	Lehendakaria	2022-03-30
Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Portugalete, S.A.	A48192983	Surposa	Portugalete	José Antonio López Ansareo	Zuzendari kudeatzailea	2022-03-30
Oarsoaldea, S.A.	A20458329	Oarsoaldea	Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia	Jesus Maria Martiarena Jaca	Oarsoaldea Garapen Agentziako (Oarsoaldea, S.A.) Administrazio Kontseiluko lehendakaria	2022-06-02
Sestao Berri, S.A.	A95378014	Sestao Berri	Sestao	Ainhoa Basabe Melendez	Sestaoko alkate-udalburua eta Sestao Berri Samp-ko lehendakariordea	2022-03-31
Eretza Hirigintza Kudeaketarako Sozietatea, S.A.	A48885669	Eretza	Barakaldo	Juan Antonio Pizarro Furones	Hirigintza eta Etxebizitza, Hirigintza-Plangintza eta -Kudeaketa Arloko zinegotzi ordezkaria eta Eretzako benetako presidentea	2021-04-16
Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarte, S.A. – Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba, S.A.	A20098349	Debegesa	Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Sorluze	Juan Ángel Balbás	Zuzendari nagusia	2022-01-28
Sociedad Pública de Vivienda de Irun – Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa SA	A20736773	Irunvi	Irun	José Antonio Santano Clavero	Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa, Sociedad Pública de Vivienda de Irun, S.A.U.	2022-06-03

2023ko apirilaren 24a, astelehena

Sozietatea	Giza Baliabideak Atxikitzeko konpromisoa		
	Pertsona kop.	Lanbide-profila	Dedikazioa (%)
Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkartea, S.A. Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao, S.A. Surbisa	1	Zuzendari orokorra	15
	1	Abokatu	100
	1	Abokatu	30
	1	Aparejadorea	100
	1	Aparejadorea	50
	1	Arkitektoa	50
	1	Administrazioko ard.	15
	1	Administraria	30
	1	Administrari laguntzailea	100
Sociedad Urbanística Municipal de Vitoria-Gasteizko Udal Hirigintza Elkartea Ensanche 21 Zabalgunea, S.A.	2	Goi mailako teknikaria	
	3	Arkitektoa	
	1	Aparejadorea	
	1	Kudeaketa-teknikaria	
	3	Administraria	
Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza	1	Zuzendari kudeatzailea	30
	1	Arkitektoa	80
	1	Arkitekto teknikoa	100
	1	Finantza arduraduna	30
	2	Administraria	100
	1	Kontabilitateko administraria	60
Sociedad Urbanística de Rehabilitación del Alto Deba, S.A. -Suradesa- Deba Garaiko Bereoneratzeko Hirigintza-baltzua, Akziokako Baltzua. Degabehiba, A.B.	1	Arkitektoa	100
	1	Abokatu	90
	1	Administraria	80
Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Portugaleta, S.A. Surposa	1	Zuzendari-kudeatzailea	20
	1	EKONOMIA ARDURADUNA	20
	1	Administraria: kontabilitateko kontrola	10
	1	Aholkularitza juridikoa	
	1	Dirulaguntzen kudeaketako ard.	20
	1	Administraria: dirulaguntzen kudeaketa	
	1	Administraria: informazioa eta aholkularitza	80
	1	Administraria: hitzorduen eta agendaren kudeaketa	
Oarsoaldea, S.A.	1	Arkitekto teknikoa	80
	1	Bide, ubide eta portuetako ingeniari	10
	1	Kudeaketa-informatikako teknikari espezialista	100
	1	Arkitektura	100
	1	Administrazioa	50
Sestao Berri, S.A.	1	Zuzendari kudeatzailea	5
	1	Arduradun juridikoa	5
	1	Arduradun teknikoa	5
	1	Ekonomia-arduraduna	10
	1	Administraria: dirulaguntzen kudeaketa	10
	1	Arkitektura teknikoa-erakintzaren ingeniari	100
	1	Juridikoko teknikaria	100
Eretza Hirigintza Kudeaketarako Sozietatea, S.A.	1	Ekonomia- eta kontabilitate-kudeaketaren arduraduna	10
	1	Administraria 1	40
	1	Administraria 2	40
	1	Administraria 3	40
	1	Arkitektura teknikoa	30
	1	Atal teknikoko arduraduna (arkitektura teknikoa)	10
Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea, S.A. – Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba, S.A.	1	Arkitektura	30
	1	Arkitektura	50
	1	Administrazioa eta finantzak goi-mailako zikloa	80
	1	Zuzenbide Lizentziatura.	50
	1	Enpresa Zientzietako Diplomatura	10
Sociedad Pública de Vivienda de Irun, S.A. Irungo Etxebizitzarako Elkartea Publikoa, S.A. Irunvi*	1	Zuzenbidea / MBA	30
	1	Arkitektura Teknikoa	50
	1	Merkataritzako teknikari espezialista administraria / Oinarriko Hezkuntza	20
	1	Historia/ Kultura Baliabideen Kudeaketa	20
	1	ADE	10
	1	Merkataritzako teknikari espezialista administraria	10

2023ko apirilaren 24a, astelehena

Sozietateak	Baliabide materialak atxikitzeko konpromisoa
Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkarte, S.A. – Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao, S.A. Surbisa	Ronda kalea 6, Bilbao 48005
Sociedad Urbanística Municipal de Vitoria-Gasteizko Udal Hirigintza Elkarte - Ensanche 21 Zabalgunea, S.A.	Fray Frantzisko 21 C-Gure Txokoa, 01007 Gasteiz. Pintorería 45, 01001 Gasteiz
Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza	San Marcial 2 20005 Donostia. Peñaflorida 14-1 2004 Donostia.
Sociedad Urbanística de Rehabilitación del Alto Deba, S.A. – Deba Garaiko Bereonertzeko Hirigintza-Baltzua, Akziokako Baltzua. Degabehiba, A.B. Suradesa	Bulego nagusia: Nafarroa 14, Arrasate - Lan eta Jendearentzako Arreta Bulegoa, Bilera Gela, Telefonogunea. Arreta egunero ematen da. Arreta-bulegoa Elgetan, Antzuolan, Bergaran, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Oñatin eta Leintz-Gatzagan, arreta astean behin emateko.
Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Portugalete, S.A. Surposa	Santa Maria 1- 2.a, 48920 Portugalete.
Oarsoaldea, S.A.	Olibet 6, Behea, 20100 Errenteria.
Sestao Berri, S.A.	Hiru Kontzejuen plaza, 1 (sarrera Txabarri 13tik) 48910 Sestao
Eretza Hirigintza Kudeaketarako Sozietatea, S.A.	c/ El Castañal, 8 Lonja Izda. 48901 Barakaldo (Bizkaia)
Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarte, S.A. – Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba, S.A.	Azitain industrialdea 3 bis, 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Sociedad Pública de Vivienda de Irun – Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa, S.A. Irunvi	Eliza kalea 6, Irun

2023ko apirilaren 24a, astelehena

Egutegi orientagarria											
Sozietatea	Mugarriak	abe 22	eka 23	abe 23	Eka 24	abe 24	eka 25	abe 25	eka 26	abe 26	Etxebizitzak guztira
Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkartea, S.A. Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao, S.A. Surbisa	Eskaerak jasotzea	200	200	270							670
	Laguntzak emateko ebazpenak	150	250	270							670
	Obren gauzatze eta amaiera kontrola	150	100	10	120	100	100				670
	Ordaintzeko ebazpenak		100	200	100	100	100	70			670
Sociedad Urbanística Municipal de Vitoria-Gasteizko Udal Hirigintza Elkartea Ensanche 21 Zabalgunea, S.A.	Eskaerak jasotzea										
	Laguntzak emateko ebazpenak										
	Obren gauzatze eta amaiera kontrola										
	Ordaintzeko ebazpenak										
Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza	Eskaerak jasotzea	100	100	100							300
	Laguntzak emateko ebazpenak		100	100	100						300
	Obren gauzatze eta amaiera kontrola						100	100	100		300
	Ordaintzeko ebazpenak							100	100	100	300
Sociedad Urbanística DE Rehabilitación del Alto Deba, S.A. -Suradesa- Deba Garaiko Bereoneratzeko Hirigintza-Baltzua, Akziokako Baltzua. Degabehiba, A.B.	Eskaerak jasotzea	60	80	60							200
	Laguntzak emateko ebazpenak	20	60	80	60						200
	Obren gauzatze eta amaiera kontrola		40	40	40	20	20	20	20		200
	Ordaintzeko ebazpenak			40	40	40	20	20	20	20	200
Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Portugaete, S.A. Surposa	Eskaerak jasotzea	100	100	100	50	50					400
	Laguntzak emateko ebazpenak	50	100	100	100	50					400
	Obren gauzatze eta amaiera kontrola		30	100	100	50	50	50	20		400
	Ordaintzeko ebazpenak			100	100	50	50	50	20		400
Oarsoaldea, S.A.	Eskaerak jasotzea	100	50								
	Laguntzak emateko ebazpenak	75	75								
	Obren gauzatze eta amaiera kontrola		50	100							
	Ordaintzeko ebazpenak		30	120							
Sestao Berri, S.A.	Eskaerak jasotzea	100	100	100	100	100					500
	Laguntzak emateko ebazpenak		100	100	100	100	100				500
	Obren gauzatze eta amaiera kontrola			130	100	100	100	70			500
	Ordaintzeko ebazpenak				130	100	100	100	70		500
Eretza Hirigintza Kudeaketarako Sozietatea, S.A.	Eskaerak jasotzea	50	50	50	100	100	100	100	100		650
	Laguntzak emateko ebazpenak		50	50	50	100	100	100	100	100	650
	Obren gauzatze eta amaiera kontrola			50	50	50	100	100	100	100	650
	Ordaintzeko ebazpenak			50	50	50	100	100	100	100	650
Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea, S.A. – Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba, S.A.	Eskaerak jasotzea	55	35	35							
	Laguntzak emateko ebazpenak	35	55	55							
	Obren gauzatze eta amaiera kontrola	15	55	55							
	Ordaintzeko ebazpenak		15	55							
Sociedad Pública de Vivienda de Irun, S.A. Irungo Etxebizitzarako Elkartea Publikoa, S.A. Irunvi	Eskaerak jasotzea	28	28	44							100
	Laguntzak emateko ebazpenak		28	28	44						100
	Obren gauzatze eta amaiera kontrola							100			100
	Ordaintzeko ebazpenak								100		100

2023ko apirilaren 24a, astelehena

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 24a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ
Sailburua

Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkarte, S.A. Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao, S.A.
IVÁN CALDERÓN FUENTE
Bilboko Udaleko Hiri-berroneratze Arloko zinegotzi ordezkaria eta Surbisaren egitezko lehendakaria

Sociedad Urbanística Municipal de Vitoria-Gasteizko Udal Hirigintza Elkarte Ensanche 21 Zabalgunea, S.A.
ANA OREGI BASTARRIKA
Lehendakaria

Entidad Pública Empresarial de Vivienda-Donostiako Etxegintza
ENEKO GOIA LASO
Lehendakaria

Sociedad Urbanística de Rehabilitación del Alto Deba, S.A. –Suradesa– Deba Garaiko Bereoneratzeko Hirigintza-baltzua, Akziokako Baltzua. Degabehiba, A.B.
GORKA ARTOLA ALBERDI
Lehendakaria

Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Portugalete, S.A.
JOSÉ ANTONIO LÓPEZ ANSAREO
Zuzendari kudeatzailea

Oarsoaldea, S.A.
JESUS MARIA MARTIARENA JACA
Oarsoaldea Garapen Agentziako (Oarsoaldea, S.A.) Administrazio Kontseiluko lehendakaria

Sestao Berri, S.A.
AINHOA BASABE MELENDEZ
Sestaoko alkate-udalburua eta Sestao Berri Samp-ko lehendakariordea

Eretza Hirigintza Kudeaketarako Sozietatea, S.A.
JUAN ANTONIO PIZARRO FURONES
Hirigintza eta Etxebizitza, Hirigintza-Plangintza eta -kudeaketa arloko zinegotzi ordezkaria eta Eretzako benetako presidentea

Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarte, S.A. – Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba, S.A.
JUAN ÁNGEL BALBÁS
Zuzendari nagusia

Sociedad Pública de Vivienda de Irun-Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa, S.A.
JOSÉ ANTONIO SANTANO CLAVERO
Irungo Etxebizitzarako Elkarte Publikoa, Sociedad Pública de Vivienda de Irun, S.A.U.

I.A ERANSKINA

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN ARLOKO BETEBEHARREI BURUZKOA

(Eranskin hau Hitzarmenaren zati banaezina da eta izaera juridiko bera du; halaber, izaera loteslea du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 28.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera).

I.– TRATAMENDU-ENKARGUAREN XEDEA.

..... sozietateari gaikuntza ematen zaio jarraian adierazitako laguntzak kudeatzeko eta izapidetzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak tratatzeko: batetik, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntza-programen oinarriak zehaztu eta deialdi publikoa arautzen duen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren babesean aurreikusitakoak (laguntza horiek Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak arautzen dituen 853/2021 Errege Dekretuan jasota daude); eta bestetik, Etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketarako babesgarrietarako finantza-neurriak buruzko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduan zehaztutako 1. eta 2. lerroko finantza-neurriak. Horretarako, Visesak tratamendu-eragile gisa jardungo du, eranskin hau parte den hitzarmenean aurreikusitako baldintzetan.

Honetan datza tratamendua:

- Bilketa.
- Erregistroa.
- Egituratzea.
- Gordetzea.
- Erkatzea.
- Ateratzea.
- Kontsulta.
- Komunikatzea.
- Transmisio bidez komunikatzea.
- Interkonexioa.
- Mugatzea.
- Aldatzea.
- Ezabatzea.
- Suntsitzea.
- Bestelakoak...

II.– UKITUTAKO INFORMAZIOA IDENTIFIKATZEA.

Hitzarmen honen helburua betetzeko prestazioak gauzatzeko, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak –tratamenduaren arduraduna–, EZ dio inolako informaziorik emango sozietateari –tratamenduaren eragilea–, kontuan izanik Gaztelagun programa sortu berri egin dela eta sozietateak zuzenean bildu eta tratatu beharko dituela laguntzak kudeatu eta izapidetzeko behar diren datu pertsonal guztiak.

III.– IRAUPENA.

Eranskin honen indarraldia Hitzarmenaren bederatzigarren apartatuan aurreikusita dagoena da.

Amaitutakoan, sozietateak eranskin honen IV. apartatuko q) letran agintzen denaren arabera jokatuko du.

IV.– TRATAMENDUAREN ERAGILEAREN BETEBEHARRAK.

..... sozietateak eta bere langileek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Tratatu behar diren datu pertsonalak Hitzarmen honen xedea betetzeko bakarrik erabiltzea. Datuak ezingo dituzte, inola ere, bere helburu propioetarako erabili.

b) Datu guztiak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren jarraibideen arabera tratatzea.

..... sozietatearen iritzian, jarraibideren batek Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) edo Europar Batasunaren edo estatu kideen datuen babesaren arloko beste edozein xedapen hausten badu, eragileak berehala jakinaraziko dio Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari.

c) Tratamenduaren edozein arduradunek –Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza berriaz barne hartuta– egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa idatziz eramatea, honako hauek jasoko dituen:

1.– sozietatearen, datuen babeserako ordezkararen eta, behar izanez gero, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren izena eta harremanetarako datuak.

2.– Arduradun bakoitzak egindako tratamenduen kategoriak; berriaz barne hartuta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

3.– Datu pertsonalak hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitzea aurreikusten ez den arren, hori gertatuz gero, transferentzia horien zerrenda, barne hartuta hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde horren identifikazioa, eta, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) 49. artikuluko 1. apartatuko 2. zenbakian adierazten diren transferentzien kasuan, berme egokien dokumentazioa.

4.– Tratatu diren datuei dagokienez hartzen diren segurtasun-neurri teknikoak eta antolakuntzako deskripzio orokorra, arlo hauei buruzkoak:

a) Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratzea.

b) Tratamendu-zerbitzu eta sistemen konfidentzialtasun, osotasun, eskuragarritasun eta erresiliencia iraunkorra bermatzeko ahalmena.

c) Datu pertsonalen erabilgarritasuna eta sarbidea berehala leheneratzeko ahalmena, gora-behera fisikorik edo teknikorik gertatuz gero.

d) Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolakuntzari lotutakoen efiziazaren egiaztatze, ebaluazio eta balorazio erregularretako prozesuak.

e) Daturik ez komunikatzea hirugarrenei, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak espresuki baimena eman ez badio, legez onargarriak diren kasuetan.

..... sozietateak aukera dauka datuak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzako beste tratamendu-eragile batzuei komunikatzeko, Zuzendaritzaren jarraibideen arabera. Kasu horretan, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak alde aurretik eta idazki bidez identifikatuko du datuak zer erakunderi komunikatu behar zaizkion, zer datu komunikatu behar dizkion eta komunikazioa egitean aplikatu beharreko segurtasun-neurriak zeintzuk diren.

..... sozietateak hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitu behar baditu datuak, Europar Batasuneko legea edo kasuan kasuko estatu kideetako lege aplikagarria betez, alde aurretik emango dio lege-betekizun horren berri Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari, legeak hori interes publikoko arrazoi nabarmenengatik debekatzen duenean izan ezik.

d) Azpikontratazioa.

Ezin da azpikontratatu Hitzarmen honen xedea osatzen duen zerbitzurik, horiek datu pertsonalak tratatzea badakarte, eragilearen zerbitzuek behar bezala funtzionatzeko behar diren zerbitzu osagarrien kasuan izan ezik.

Tratamenduren bat azpikontratatu beharko balitz, horren berri eman beharko zaio Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari, alde aurretik eta idazki bidez, hamar egun balioduneko aurrerapenarekin. Zer tratamendu azpikontratatu nahi diren adierazi beharko da, eta enpresa azpikontratista argi eta garbi identifikatu beharko da, harremanetarako datu eta guzti. Azpikontratazioa gauzatuko da, baldin eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak ez badu aurka egiten horretarako ezarritako epean eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzari kontsultatu ondoren.

Azpikontratista ere tratamenduaren eragiletzat hartuko da, eta, era berean, dokumentu honetan sozietateari ezarritako betebeharrak betetzera behartuta dago, baita Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza ematen dituen jarraibideak ere. sozietateari dagokio harreman edo lotura berria arautzea, eragile berriak jatorrizkoaren baldintza berberak (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun-neurriak...) eta betekizun formal berberak izan ditzan, betiere datu pertsonalen tratamendu egokiari eta ukitutako pertsonen eskubideak bermatzeari dagokienez. Azpieragileak ez-betetzerean bat egin ez gero, sozietatea izango da, oraindik ere, erabateko erantzule Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren aurrean, betebeharrak betetzeari dagokienez.

e) Hitzarmen honen bidez eskuratu dituen datu pertsonalei dagokienez, sekretu-eginbeharra gordetzea, baita Hitzarmenaren xedea amaitutakoan ere.

f) Datu pertsonalak tratatzeko konpromisoa hartzen duten baimendutako pertsonak konfidentzialtasuna errespetatu eta dagozkien segurtasun-neurriak beteko dituztela bermatzea. Beraz, horren guztiaren berri eman behar zaie.

g) Aurreko apartatuan ezarritako betebeharra betetzen dela ziurtatzen duen agiria Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren eskura mantentzea.

h) Datu pertsonalak tratatzeko baimena dutenek datu pertsonalei buruzko prestakuntza egokia dutela bermatzea.

i) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari laguntza ematea eskubide hauek betetzeko eskatzen badu:

1.– Sartzeko, zuzentzeko, ezereztzeko eta aurkaratzeko eskubidea.

2.– Tratamendua mugatzeko eskubidea.

3.– Erabaki indibidualizatu automatizatuen eraginpean ez egoteko eskubidea (profilen prestaketa barne).

Eragindako pertsonak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren aurrean datuetara sartzeko, eta haiek zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubidea, tratamendua mugatzeko eskubidea eta erabaki indibidualizatu automatizatuen eraginpean ez egoteko eskubidea baliatzen dituztenean, Zuzendaritzak sozietateari jakinarazi beharko dio. Jakinarazpena berehala egin beharko da, eta, eskaera jasotzen denetik, ezingo da, inola ere, lanegun bat baino gehiago igaro. Horrekin batera, eskabidea ebazteko garrantzitsua izan daitekeen informazio oro jakinaraziko da.

j) Informazioa izateko eskubidea.

..... sozietateak, datuak biltzen dituenean, datuen tratamenduen inguruko informazioa eman beharko du. Informazioa laguntza-eskabideen eremuan adierazten diren idazkeran eta formatuan eman beharko da.

k) Datu pertsonalen segurtasun-urrietak jakinaraztea.

..... sozietateak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari jakinaraziko dizkio, bidegabeko luzamendurik gabe eta 48 orduko epean, jakin dituen bere ardurapeko datu pertsonalen segurtasun-urrietak; horrekin batera, gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko garrantzitsua den informazio guztia ere helarazi beharko dio.

Jakinarazpena ez da beharrezkoa izango segurtasun-urriaketa hori arriskutsua ez bada pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako.

Gutxienez informazio hau helaraziko da, informazioa edukiz gero:

a) Datu pertsonalen segurtasun-urrietaren deskribapena eta, ahal bada, eragindako interesdunen kategoriak eta gutxi gorabeherako kopurua, baita eragindako datu pertsonalen kategoriak eta gutxi gorabeherako erregistroen kopurua ere.

b) sozietateko datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak, edo, hala badagokio, informazio gehiago lortzeko beste pertsonaren batenak.

c) Datu pertsonalen segurtasun-urrietak izan ditzakeen ondorioen deskribapena.

2023ko apirilaren 24a, astelehena

d) Datu pertsonalen segurtasun-urraketa konpontzeko hartutako edo proposatutako neurrien deskribapena, eta, hala badagokio, ondorio kaltegarriak arintzeko hartutako neurrien deskribapena.

Informazioa berehala ematea ezinezkoa bada, ahal den heinean, informazioa arian-arian emango dio, bidegabeko luzamendurik gabe.

..... sozietateak ahalik eta denbora laburrenean jakinarazi behar dizkie interesdunei datu pertsonalen segurtasun-urraketak, urraketa hori oso arriskutsua izan dai-tekeenean pertsona fisikoen eskubide eta askatasunerako.

Jakinarazpena modu argi eta sinplean egin beharko da, eta hau egin beharko da, gutxienez:

a) Datu pertsonalen urraketaren nolakotasuna azaldu.

b) sozietateko datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak adierazi, edo, hala badagokio, informazio gehiago lortzeko beste pertso-naren batenak.

c) Datu pertsonalen segurtasun-urraketak izan ditzakeen ondorioak deskribatu.

d) Datu pertsonalen segurtasun-urraketa konpontzeko Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak hartu dituen neurrien edo proposatzen dituen neurrien deskribapena; eta, hala badagokio, ondorio negatiboak arintzeko hartutako neurriak ere.

e) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari babesa ematea, datuak babesteari dagozkion inpaktuaren ebaluazioak egiteko, hala dagokionean.

f) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari babesa ematea, kontroleko agintariari aurretiazko kontsultak egiteko, hala dagokionean.

g) Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzaren esku jartzea bete-beharrak betetzen dituela egiaztatzeko behar den informazio guztia, baita erantzuleak edo hark baimendutako beste auditore batek egindako auditoriak edo ikuskapenak egiteko beharrezkoa dena ere.

h) Segurtasun-neurriak ezartzea.

Nolanahi ere, honetarako mekanismoak ezarri beharko ditu:

1) Tratamendu-zerbitzu eta sistemen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia bermatzea.

2) Datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea berehala leheneratzea, gorabehera fisikorik edo teknikorik gertatuz gero.

3) Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri teknikoaren eta antolakuntzakoaren eraginkortasuna aldizka egiaztatzea, ebaluatzea eta balioestea.

4) Datu pertsonalak seudonimizatzea eta zifratzea, hala badagokio.

..... sozietateak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak pribatutasun-neurrien arloan zehaztutako jarraibideen arabera jokatu du.

l) Datuen xedea.

Hitzarmena amaitu ondoren, sozietateak erabat ezabatuko ditu datuen tratamendurako erabilitako ekipamendu informatikoetan egon daitezkeen datuak.

Aldi berean, sozietateak Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzari datu pertsonalak itzuliko dizkio, eta, hala badagokio, datu horiek jasotzen dituzten euskarriak, datuen tratamenduari buruzkoak.

Itzultitakoan, datu guztiak ezabatu beharko dira eragileak erabilitako ekipamendu informatikoetatik.

Hala ere, kopia bat gorde ahalko du eragileak, datuak behar bezala blokeatuta betiere, Hitzarmena gauzatzeak erantzukizunak eragin ditzakeen bitartean.

Eragiketa horiek gauzatzeko, bai sozietateak bai Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak zehazten dituen pribatutasun- eta segurtasun-jarraibideen arabera jokatu dute.

V.- TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN BETEBEHARRAK.

Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak eta, hala badagokio, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Inpaktuaren ebaluazioa egitea, sozietateak tratatu behar dituen datu pertsonalen babesari dagokionez.

b) Egin behar diren aldez aurreko kontsultak egitea.

c) sozietateak tratamenduaren aurretik eta tratamendu osoan zehar Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB) betetzen duela zaintzea.

d) Tratamendua gainbegiratzea, eta ikuskapenak eta auditoriak ere egitea.

2023ko apirilaren 24a, astelehena

II.B ERANSKINA

IRUZUR, USTELKERIA EDO INTERES GATAZKEN ARRISKUAREN EBALUAZIOARI BURUZKOA. INTERES GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

(Interes Gatazkarike Ezaren Adierazpenaz gain, egiaztatu egin behar da, halaber, hirugarrenentzako interes-gatazkei eta iruzurrei aurre egiteko prozedura bat badela, prebentzio-, detekzio-, zuzenketa- eta jazarpen-neurri egokiak barne hartzen dituen).

Kontratuaren edo deialdiaren izena:

.....

Espedientearen erreferentzia

(Aitortzailearen identitatea)..... naiz (deialdia egin duen erakundea)
.....(e)n lan egiten dut moduan,

ADIERAZTEN DUT

Lehenengoa.– Honako hauen jakinaren gainean nago:

7.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBko finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izenekoak, ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago familia, afektu, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».

8.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distortsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitzaile guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.

9.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartetik abstenituko direla «*administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean*», zehazki, egoera hauetako batean:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkari edo mandataritarako.

c) Aurreko idatz-zatian aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izatea.

e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edonolako lan-zerbitzuak emandakoa izatea, edozein egoera edo lekutan.

Bigarrena.– Ez nago EBko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez daukat Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan jasotako abstentzio-kausarik, lizitazio/emakida prozedurari eragin diezaiokeenik.

Hirugarrena.– Konpromisoa hartuta daukat egoera hori eragiten duen edo eragin dezakeen edozein interes-gatazka edo abstentzio-kausarik balego berehala emango diodala horren berri kontratazio-organoari, ebaluazio-batzordeari edo hierarkian goragokoa den organoari; horrez gain, ebaluazio-prozesuan eta prozedura honekin lotutako jarduera guztietan parte hartzeari utziko diot.

Laugarrena.– Konfidentziasunez tratatuko ditut prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, eta ez dut modu desegokian erabiliko prozedura horietan parte hartzeagatik ematen zaidan informazioa.

Bosgarrena.– Badakit interes-gatazkarik ez daukadala adierazteko aurkeztu dudan agiria falsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-, administrazio- eta justizia-ondorioak izango ditudala.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)

III.C ERANSKINA

INGURUMENARI «KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO» PRINTZIOA (DNSH)
BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

(Izen-abizenak), NAN duenak, eta (Titulazioa),
..... elkargo-ofizialaren elkargokide zenbakiduna,
entitatearen (IFK:) izenean eta hura ordezkatzuz,

ADIERAZTEN DU:

«.....» izeneko proiektuaren, memoriaren edo eraikinaren liburuaren egilea da eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) esparruan aipatutako deialdiari dagozkion laguntzak eskatzeko aurkeztu da.

Laguntzak eskatzeko aurkeztutako proiektu, memoria edo eraikinaren liburu horrek eta programa horren barruan sortzen diren jarduketek honako hau betetzen dute:

Bertan gauzatzen diren jarduketek ez diete kalte nabarmenik eragiten beheko ingurumen-helburuei, ingurumenaren aldetik jasangarriak diren jarduera ekonomikoen sailkapen-sistema bat (edo «taxonomia») ezarri inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua araberak:

- Klima-aldaketa arintzea.
- Klima-aldaketara egokitzea.
- Ur- eta itsas-baliabideak jasangarritasunez erabiltzea eta babestea.
- Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
- Atmosferaren, uraren edo lurzorua kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.
- Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea.

Jarduketek 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako betekizunak betetzen dituzte, eta 2. osagaien ezarritako eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean jasotako ezaugarri eta baldintza espezifikoetara egokitzen dira, ingurumen-helburu bakoitzerako:

Ingurumen-helburua	Jarduketek bete beharreko baldintza espezifikoak.
1.– Klima-aldaketa arintzea.	Efizientzia energetikoa hobetuko da, 201/31/EU Zuzentarauan ezarritakoaren arabera. Horrek kontsumo txikiagoak ekarriko ditu, eta, beraz, BEG* gutxiago isurtzea.
2.– Klima-aldaketara moldatzea.	Ez da baldintza espezifikoak definitzen, jarduketek helburu hori hobetzea dakarte (eraikinen eta inguruaren baldintzak hobetzea).
3.– Ur- eta itsas-baliabideak.	Ez da baldintza espezifikoak definitzen, jarduketek ez baitute eragin esanguratsurik izan behar helburu horretan.

2023ko apirilaren 24a, astelehena

Ingurumen-helburua	Jarduketek bete beharreko baldintza espezifikoak.
4.– Ekonomia zirkularra.	<p>Proiektuaren baldintza espezifikoak: *</p> <p>i) 1. Eraikuntza-gunean sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakin ez-arriskutsuen % 70 (pisuan) gutxienez (2000/532/EE Erabakiak finkatutako Europako Hondakinen Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik), berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, bestelako material batzuk ordezkatzeko hondakinak erabiliz egindako betelanak barne, hondakinen hierarkiaren eta EBren eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera.</p> <p>ii) Operadoreek hondakinen sorkuntza mugatu egin beharko dute eraikuntzarekin eta eraispénarekin zerikusia duten prozesuetan, EBren eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik, eskueran dauden teknikarik onenak kontuan hartuta eta eraispén selektiboa erabiliz, substantzia arriskutsuak modu seguruan ezabatu eta manipulatu ahal izateko eta kalitate handiko berrerabilpena eta birziklapena errazteko, materialak gaika ezabatuz, eraikuntza- eta eraispén-hondakinatarako eskura dauden sailkapen-sistemak erabiliz. Era berean, ahal dela eraispén modu selektiboan egitea ebatziko da eta sailkapena hondakinak sortzen diren lekuan bertan egitea lehenetsiko da.</p> <p>iii) Eraikinen diseinuetan eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna bultzatuko dute eta, bereziki, eraikinak desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko ISO 20887 arauari edo beste arau batzuei erreferentzia eginez, frogatuko dute nola dauden diseinatuta baliabideen erabileran efizienteagoak, moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak izateko, berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko.”</p>
5.– Kutsadura.	<p>Ez da ondorio esanguratsurik espero.</p> <p>Neurri honetan aurreikusitako jarduketetan erabilitako eraikuntzako materialek eta osagaiak ez dute amiantorik edukiko, ezta oso substantzia kezagarriak ere; alegia, 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean jasotako baimenari lotutako substantzian zerrendaren arabera identifikatutakoak. *</p>
6.– Biodibertsitatea eta ekosistemak.	<p>Ez da baldintza espezifikoak definitzen, jarduketek ez baitute eragin negatibo zuzenik edo zeharkakorik izan behar biodibertsitatean edo ekosistemetan</p>
(*) 853/2021 Errege Dekretuan ezarritako programaren betekizunak.	

Erantzukizunpeko adierazpen honen xede diren jarduketek DNSH printzipioaren helburuei buruz indarrean dagoen araudi aplikagarria beteko dute.

Proiektuan eta harekin batera doan hondakinen kudeaketa-azterlanean deskribatutako jarduketek b) atalean ekonomia zirkularraren helburuaren ebaluazio substantiborako ezarritako irizpide espezifikoak betetzen dituzte, honako honen arabera:

Proposatzen den eraikuntza-birgaitzea lehendik dagoen eraikuntzak ezartzen dituen baldintzetatik abiatzen da. Ondorioz, eraikuntza zirkularraren irizpideak kontuan hartu dira, esku-hartze zehatzek ahalbidetzen duten neurrian.

Kontuan hartutako eraikuntza-teknikek zirkulartasunaren alde egiten dute: proposatutako jarduketan ondoriozko eraikuntza- eta eraispén-hondakinen (EEH) gutxienez % 70 berrerabiltzeko, birziklatzeko eta berreskuratzeko prestatzeko beharrezkoak diren ekintzak hartu dira kontuan.

Adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dira.

Eta hau dagokion lekuan ager dadin,

(Non).....(e)n,koren(e)an sinatzen dut.

Teknikari eskudunak sinatua